



Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat bidez prestatutako iharduerak.

Montse Vega 1997
mvega@pie.xtec.es

Itzuli du ORIXE TALDEAK
orixe@arrakis.es

Iharduera edo ariketa horiek prestatu dira haurrak zenbait osagarriren antolaketa eta hurrenkera lanetan trebatzeko era batera eta bestera.

5 eta 8 bitarteko haurrentzat pentsatua dago, baina irakasle bakoitzak erabaki beharko du bere ikasleentzat egokia den ala ez, gure egokipen aholkua bere esperientziarekin osatuz.

Hiru motatan sailka daitezkeen 15 iharduerak osatzen dute ariketa sorta hau, baina nahasian emanak daude. Hiru motak honako hauek dira:

Osagarri serie bat kopiatzea:

- Pantailan zenbait irudi erakusten zaizkigu, eta laguntza barran agertzen da aktibitatea egiteko ordenean jarri behar dituelako eskaera.
- Haurrak irudiak mugitu egingo ditu leku batetik bestera lortu nahi duen ordenean jarri arte. Ordena zuzena denean iharduera amaitu egingo da eta hurrengo ariketara igaroko da.

Falta den osagarria bilatu:

- Pantailan, ezkerreko lehiatilan ikusiko ditugun hiru serieak eskuineko lehiatilan agertzen diren osagarri berdinez osaturik daude, baina ezkerreko horietako bakoitzari osagarri bat falta zaio eta galdera ikur bat agertzen da falta denaren tokian.
- Beraz, haurrak falta den osagarria bilatu eta seriean falta den elementuarekin asoziatu behar du.
- Ondo egiten duenean, elementu hori seriearen barruan agertuko da. Hiru serieak osatzen dituenean, berriz, ariketa amaitu izango da eta automatikoki hurrengo ariketara igaroko da.

Elementu batzuk ordenatzea irizpide baten arabera:

- Pantailan zenbait marrazki agertzen dira eta haurrak antolatu egin beharco ditu laguntza barrako ikonoak erakusten dion ikonoa irizpidetzat hartuta.
- Hautatu diren irizpideak ezberdinak dira: motzenetik luzeenera, hutsa dagoenetik betea dagoenera, gizenenetik argalenera, gazteenetik zaharreneara